



## TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUORDEAREN AGINDUA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILEKO 2017RAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONESTEN DUENA.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1. artikulua ezartzen du diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat eduki behar dela. Haren bitartez, saileko diru-laguntzei, helburuei eta plana aplikatuz lortu nahi diren ondorioei dagokienez, identifikatu behar dira plana egiteko behar den epea, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta.

Agindu hori betetzeko, sailaren sustapen-politikak planifikatzeko tresna gisa eratu da plan hau, zeinak Euskadi 2020 Gobernu Programaren konpromisoen barruan baitaude.

Plan hau prestatzeko, gobernu-programan eta diru-laguntzei buruzko programetan definitutako interes publikoak aztertu dira, eta planaren indarraldian erabiltzeko moduan dauden baliabideekin konparatu dira. Hala, gure jardute-eremuan, eraginkortasuna eta efizientzia areagotzea bermatzeaz gain, gardentasuna ere sendotzen da.

Plan hau XI. legealdiko lehen lauhilekoan eratuko da. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, hala, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko 2017-2020 Plan Estrategikoa eratu gabe ekin dio legealdiari, eta ez ditu behar bezala ebaluatu 2016ko diru-laguntzei buruzko programak. Hortaz, 2017ko ekitaldira mugatu beharra dago.

Bestalde, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoak (Osasun Sailari atxikita zegoen lehen) diru-laguntzei buruzko plan estrategiko propioa du 2016-2018rako. Beraz, baliteke saileko plan bateratura gehitzeko urtebete itxaron behar izatea.

Edonola ere, ohartarazi behar dugu planak izaera programatikoa duela eta Euskadi 2020 Gobernu Programaren jarduketan esparru orokorrean sartuta dagoela. Beraz, edukiak ez du eskubide eta betebeharririk sortzen. Planaren eraginkortasuna abiarazten diren diru-laguntza ildoen araberakoa izango da, eta, beste alderdi batzuen artean, dagoen aurrekontuari begiratu beharko zaio.

Hortaz, saileko gainerako jarduketak bezala, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko diru-laguntzei buruzko plan estrategikoak honako erronka edo ardatz estrategiko nagusi hauek ditu:

- Hazkunde turistiko sendoa, enplegu gehiagorekin eta hoberekin

- Merkataritza-sektorearen lehiakortasuna sustatzea

Azaldutakoa ikusita, Gobernu Legearen 1981eko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikulua emandako eskumenak gauzatu eta 2012ko abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua kontuan hartuta (Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen),

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehena.-** Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Diru-laguntzen 2017rako Plan Estrategikoa onartzea (eranskinean jaso da).

**Bigarrena.-** Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila eta hari atxikitako erakundeak plan horretan ezarritakora egokituko dira diru-laguntzak emateko, eta, edonola ere, aurrekontuak aukera ematen badu emango dira laguntza horiek.

Planean aurreikusi ez den diru-laguntza bat emanez gero, espedientean justifikatu beharko da zergatik ez den aurrekontuan gehitu, eta aurrekontu-aurreikuspenak berriz egokitu beharko dira.

**Hirugarrena.-** 2018ko lehen hiruhilekoaren barruan, plana bete ote den aztertuko da, Euskal autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia Antolatzeko Printzipioen Legearen 49.8. artikuluari jarraikiz eta diruz lagundu daitezkeen programei buruz egiten den ebaluazioren barruan, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko 2018-2020 Plan Estrategikoa eratuko da. Plan horretan, kontsumo-alorreko diru-laguntzei buruzko programak txertatuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 30a

Alfredo Retortillo  
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA

## ERANSKINA

### TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILEKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO PLAN ESTRATEGIKOA - 2017KO EKITALDIA

#### 1.- Plana justifikatzea.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1. artikulua ezartzen du diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat eduki behar dela. Haren bitartez, saileko diru-laguntzei, helburuei eta plana aplikatuz lortu nahi diren ondorioei dagokienez, identifikatu behar dira plana egiteko behar den epea, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta.

Aipatutako agindua betetze aldera, sailen jarduketa bideratzeko, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 1/2015 Zirkularra onartu du. Zirkular hori diru-laguntzei buruzko plan estrategikoak eratzearen ingurukoa da, eta adierazitako planak eratzera eta onartzera bideratutako neurri sorta bat jasotzen du.

Zirkular hori betetzeko eratu da plana, zirkular horretan ezarritako edukiarekin eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eskatutako edukiarekin.

#### 2.- Aplikazio-eremua.

Planak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren diru-laguntzen inguruko jarduera jaso du. Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoaren diru-laguntzen inguruko jarduerari buruz beste plangintza-dokumentu bat egin da. Basquetour-Turismoaren Euskal Agentzia-Agencia Vasca de Turismo SA sozietate publikoaren jarduerarik ez da jaso diru-laguntzei dagokienez, ez baitzegoen aurreikusita.

Planari ezarritako denbora-tartea 2017ko aurrekontu-ekitaldia da. Aurrekontuetan zenbait urterako aurrekontu-sailak dituzten diru-laguntzei buruzko programetan, aurrekontu-zuzkidura horietan ezarritako denbora-tartea jaso da. Horretarako, aintzat hartu da Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Legearen 30. artikuluan ezarritako konpromiso-kredituak lotzeko mekanikak onartzen duela arlo horretako plangintza eta legealdia baina denbora-tarte handiagoa uztartzea, baina hurrengo legealdian saila burutzen duen zuzendaritza taldeak beti izango du plangintza aldatzeko ahalmena.

Diru-laguntzei buruzko programen fitxek, halaber, 2017ko aurrekontu-zuzkidurak jaso dituzte.

### 3.- Planaren edukia.

Gobernu-programako konpromisoekin lotutako ardatz bakoitzari jarraikiz, diruz lagundu asmo diren jarduketak sartzen diren ardatzak jaso ditu.

Jarraian, diru-laguntzei buruzko programak betetzeko espero diren kostu orokorren inguruko datuak identifikatu ditu laburki, saila egituratzen duten antolamendu-unitateen arabera.

Azkenik, diru-laguntzei buruzko programa bakoitzari dagokionez, planak fitxa bat du, eta horrek jasotzen ditu helburuak, ekintzak eta adierazleak; bai eta aurreikusitako denbora-tartea, plana zuzentzen zaien sektoreak, diru-laguntzak emateko prozedura, beharrezkoak diren aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publikoko ehunekoak ere.

### 4.- Ardatz estrategikoak eta helburuak identifikatzea.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Diru-laguntzei buruzko Plan Estrategikoak bat egin du Euskadi 2020 XI. Legealdiko Gobernu Programaren konpromisoekin, eta konpromiso horien artean, sailaren jarduketa-eremuari dagozkionekin. Hain zuzen, honako hauekin:

- Hazkunde turistiko sendoa, enplegu gehiagorekin eta hobearekin
- Merkataritza-sektorearen lehiakortasuna sustatzea

#### 4.1.- Hazkunde turistiko sendoa, enplegu gehiagorekin eta hobearekin

Jarduera turistikoaren alorrean, sailak bultzatutako politika publikoak turismo -eredu jakin baten sustapenean jartzen du arreta: turismo dibertsifikatua, kalitateari garrantzia emango diona eta lurraldez lurralde orekatua izango dena hazteko eredu bat sustatzea da helburua.

Horretarako, alor horretan sailaren jarduketaren bidez lortu nahi dituen helburu estrategikoak hauek dira:

1. Bikaintasuna
2. Jasangarritasuna
3. Esperientziazko turismoa
4. Herrialdeko marka turistikoa: Euskadi-Basque Country

Ardatz estrategiko horren barruan, sailaren diru-laguntzei buruzko politikak lau helburu horiek ditu.

Horren harira, uste dugu lehentasunezkoa dela erakundeek eta agenteek bat egiteko akordio bat egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko turismoa egoki kudeatzeari dagokionez. Akordio horren bidez, aldeztu dugun hazkunde turistikoko eta xede turistikoko eredia erabakiko da, aberastasun-iturri, ongizate iraunkorraren iturri eta kalitatezko enpleguaren iturri izango dena.

Helburu orokor horien barruan, diru-laguntzei buruzko politika honako konpromiso hauei jarraitzen die:

#### *Bikaintasunarekiko konpromisoa*

Globalizatuta dagoen mundu honetan, gure herrialde txikia bikaintasunaren bidez baino ezin da lehiatu. Bisitariak erakarri, lehiakorrak izan eta urtaro guztietarako eskaintza dibertsifikatua eman nahi badugu, uste dugu bi zentzutan lan egin behar dugula:

- Berrikuntza. Bisitariari eskaintzen dizkiegun zerbitzuei balioa eransteko beste era batzuk aurkitu behar ditugu, eta ditugun baliabideak eta mekanismoak erabili behar ditugu bisitariak erakartzeko eta haien itxaropenak betetzeko.
- Teknologia. Zerbitzu turistikotarako teknologia berriak modu ikusgarrian garatzen dira. Ziurtatu behar dugu aukera teknologiko guztiak abiadura egokian ezartzeko gai garela, hobetze aldera. Adibidez, baliabide turistikoko digitalizatzea zenbait plataformatan, hala nola Googlen, Trip Advisoren eta Wikilocks-en; tresna teknologikoak ezartzea gure enpresa turistikotan, ostalaritzatik sukaldaritzara.

Helburu estrategiko horretan, diruz laguntzeko honako ildo hauek bultzatzea jaso da: Euskadiko baliabide turistikoa sustatzea; metodologia-estandarizazioan eta helburu-sistemen ezarpenean eta haren neurketan oinarritutako kudeaketa aurreratua; eskaintzaren dibertsifikazioa, bikaintasun-turistaren eta beste sektore batzuetarako balio erantsiaren *target*aren arabera eskari espezializatuari arreta emateko; edozein formatu berrizailletako eta itunetan oinarritutako produktuak merkaturatzea (App-ak, GPS...); eta turismoaren, merkataritzaren, ostalaritzaren eta euskal sukaldaritzaren arteko loturak sustatzea —bereziki, kongresu, konbentzio eta azoken

segmentua (Convention Bureaux, MICE) eta turismo enogastronomikoa (Euskadi Gastronomika, Miniature Pintxos Congress)—.

### *Jasangarritasuna*

NBEk adierazi du 2017a turismo jasangarriaren nazioarteko urtea dela. Uste dugunez, turismoa garatzeko, hazkunde eta garapen jasangarriko irizpideei jarraitu behar zaie. Jasangarritasunaren aldeko apustua egiten dugu, ingurumenari buruz ez ezik, aurrerapen ekonomiko eta soziala eta langileentzako zein gizartearentzako oro har enplegu- eta bitzita-kalitatea eragiteari dagokionez ere bai.

Horren harira, alde batetik, lurralde-oreka eta ingurumen-iraungarritasuna sustatuko dira sustapen-ekintzetan eta baliabideen kudeaketan, irisgarritasuna barne; eta, bestetik, sektorea profesionalizatzea eta lanbide turistikoak hobetzea sustatuko dira, bai eta enpresa-transmisioko programak ere.

### *Esperientziazko turismoa*

“Euskadiko esperientzia” aparta eskaini nahi dugu. Sektoreko joera da helmugetako esperientziei buruzko informazioa eskaintzea eta partekatzea. Bidaia-webguneek — esaterako, Tripadvisor edo Kayak atariak— helmugako jardueri eta esperientziei buruzko informazioa jasotzen dute, bai eta bidaiarien iritziak eta balorazioak, foroak eta abar ere.

Gure helburua da erantzuna ematea turistaren segmentu eta behar berriei. Horretarako, “Euskadiko esperientzia” bikaina sortuko dugu, egiazkotasuna eta balio erantsia izango duena (eno-gastronomia, artea, kultura, musika, jarduerak, etab.), gainerako helmugen hutsaltzetik eta masifikaziotik bereizteko.

### *Herrialdeko marka: Euskadi-Basque Country*

Nazioartekotzeko estrategia partekatuaren ildoetako bat sustapena da, Euskadi-Basque Country herrialde-markaren bidez. Marka hori euskal administrazio turistikoa integratzeko eta bateratzeko elementua da.

Euskadi helmuga bakan bihurtzen duten elementuak bultzatuko dira oinarrizko erreferentziazko elementu gisa, Euskadi-Basque Country marka turistikoa kokatzeko. Eta marka foroetan eta nazioarteko azoketan indartuko da.

#### 4.3.- Merkataritza-sektorearen lehiakortasuna sustatzea.

Banaketako eta merkataritzako sektoreak iraultza teknologikoa bizitzen ari dira. Iraultza hori paradigma-aldaketa batek eragin du. Aldaketa disruptibo horrek berrikuntza disruptiboa behar du. Aldaketetara egokitu behar da eta aurrea hartu behar zaie.

Merkataritza etapa berri batean dago, aro digitalean. Etapa hori lankidetzak-ekonomiako ereduetan, plataformetan, sareetan eta berrikuntza-ekosistemetan oinarritzen da.

Honako hauek dira arlo horretako helburu estrategikoak:

1. Ekintzailtza, eta kudeaketa aurreratua.
2. Berrikuntza eta *e-commercea*.

Helburu orokor horien barruan, diru-laguntzei buruzko politika honakoetan kokatzen da, jarraian adieraziko diren xedeak betetzeko:

##### *Ekintzailtza, eta kudeaketa aurreratua*

Tokiko dendei eta horien lehiakortasunari laguntzean datza, enplegua sortu eta finkatzeko eta hiriguneak dinamizatzeko funtsezko elementu gisa. Horretarako, kooperazioa eta asoziazionismoa sustatuko dira, merkataritzako lankidetzak, dinamizazio eta lehiakortasuneko inguruko eta tokiko estrategien bidez.

Ekintzaile berrien prestakuntza eta gaikuntza hobetu nahi dira, bai eta merkataritza-sektoreko langileen ahalmenak ere, sektoreko laguntza teknikoko zerbitzua eta ezagutzaren transmisioa indartuz.

Amaitzeko, helburu horretan sartzen dira modernizazio-programak, bai eta kudeaketa aurreratuko, kalitateko eta teknologiko prestakuntza ere.

5.- Diru-laguntzen programen laburpena

**Ardatz Estrategikoa: Turismo-hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta handiagoa izanda**

Helburu estrategikoa: **Bikaintasuna**

Diru-laguntza lerroa	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa2017
Enpresa turistikoen lehiakortasunaren modernizazioari eta hobekuntzari zuzendutako laguntzak	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	700.000
Deustuko Unibertsitatearekin egindako Prestakuntza-Hitzarmena	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	38.000
Enpresa eskualdaketako programa -Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	14.110
Enpresa eskualdaketako programa- Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	27.390
Enpresa eskualdaketako programa- Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	41.500
SEA Arabako Enpresariei zuzendutako diru-laguntza izendunak	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	36.667
Gipuzkoako Enpresarien elkarrekin hitzarmena	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	37.666
Bizkaiko Enpresarien elkarrekin hitzarmena	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	37.666
<b>TOTAL</b>		<b>932.999€</b>

Helburu estrategikoa: **- Jasangarritasuna**

Diru-laguntza lerroa	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa 2017
Turismoko Lurralde-Proiektuei zuzendutako laguntzak	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	904.000
<b>TOTAL</b>		<b>904.000€</b>



**Helburu estrategikoa:** Euskadi-Basque Country marka turistikoa -

Diru-laguntza lerroa	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa 2017
Basque Culinary Center Fundazioarekiko hitzarmena	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	35.000
Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekiko hitzarmena	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	35.000
Jazz Hitzarmena-Getxoko Kultur Etxea	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	20.000
Blues Jazzaldia Hitzarmena. Hondarribiko Udala	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	20.000
Jazz Hitzarmena- Victoria Eugenia Antzokia S.A.	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	20.000
Jazz Hitzarmena- Jazz Vitoria-Gasteiz Jaialdia Elkarte	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	20.000
Miniature Pintxos Congress	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	42.000
<b>TOTAL</b>		<b>192.000€</b>

**Ardatz estrategikoa:** Komertzio-sektoreko lehiakortasunaren sustapena

**Helburu estrategikoa:** Ekintzailletza eta Kudeaketa Aurreratua

Diru-laguntza lerroa	Organo kudeatzailea	Zenbatekoa
Merkataritzako ekipamenduen hobekuntza - MEC	Merkataritza zuzendaritza	3.750.000
Merkataritzari Laguntza Teknikoari zuzendutako beka	Merkataritza zuzendaritza	510.000
Dibulgazioa	Merkataritza zuzendaritza	250.000
FICOBA Fundazioa. Sustapen-jarduerak	Merkataritza zuzendaritza	150.000
Merkataritza arloko diru-laguntza - Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera	Merkataritza zuzendaritza	25.500
Merkataritza arloko diru-laguntza - Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera	Merkataritza zuzendaritza	49.500
Merkataritza arloko diru-laguntza - Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera	Merkataritza zuzendaritza	75.000
Enpresa eskualdaketako programa - Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera	Merkataritza zuzendaritza	42.500
Enpresa eskualdaketako programa - Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera	Merkataritza zuzendaritza	82.500
Enpresa eskualdaketako programa - Bilboko Merkataritza, Industria eta	Merkataritza zuzendaritza	125.000

Itsasketa Ganbera		
Merkataritza bulego teknikoak	Merkataritza zuzendaritza	1.309.000
BID. Gasteiz-on Gerenteak	Merkataritza zuzendaritza	90.000
BID. Shop Donosti Gerenteak	Merkataritza zuzendaritza	90.000
BID. Bilbao Dendak Gerenteak	Merkataritza zuzendaritza	90.000
Euskomer Enpresen Arteko Lankidetza	Merkataritza zuzendaritza	137.000
Euskaldendak Elkartze-lankidetza	Merkataritza zuzendaritza	100.000
Hiria 3.1 Tokiko merkataritzaren garapena	Merkataritza zuzendaritza	100.000
Euskalit. Merkataritzarako Kudeaketa aurreratua	Merkataritza zuzendaritza	250.000
Hiri-ingurunetarako Merkataritza-dinamizazio-programak	Merkataritza zuzendaritza	1.875.143
Zonako estrategiak garatzeko laguntza	Merkataritza zuzendaritza	1.645.000
FICOBA: ondare-defizitaren finantzaketa	Merkataritza zuzendaritza	50.000
<b>Guztira</b>		<b>10.796.143</b>

**Ardatz estrategikoa:** Hazkunde turistikoa sendoa, enplegu gehiago eta hobe duena..

**Helburu estrategikoa:** Bikaintasuna

**Organoa:** Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza

**Programa:** Turismo (75111)

**Diru-laguntza lerroa:** Enpresa turistikoen lehiakortasunaren modernizazioari eta hobekuntzari zuzendutako laguntzak (MET)

<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>		
	2017	
<b>Helburua:</b> Eskaintza turistikoa balio erantsia handitzea, Euskadi kalitatezko eta bikaintasunezko helmugatzat hartuta, Euskadin aberastasuna eta kalitatezko lana sortzeko gaitasun handiagoa egon dadin.		
<b>1.ekintza</b> Jarduera turistikoa alorrean berritzaileak diren ekintzak sustatu		
<b>Adierazlea:</b> Zenbat (proiektu) enpresa lagundu diren MET laguntza-programaren bidez estrategikoak diren segmentuetan lehiakorrek eta berritzaileak diren turismo-enpresak sortzeko.	40	
<b>Adierazlea:</b> Zenbat enpresa lagundu diren MET laguntza-programaren bidez egungo turismo-enpresek eskariari egin beharreko egokitzapena eta egokitasuna lortzeko, bai eta kalitatearen ziurtapena, ingurumen-kudeaketa eta irisgarritasunaren hobekuntza ere.	80	
Teknologia berrien txertatzea sustatzea eskaintza turistikoa balio-proposamen berriak ezartzeko.	27	
<b>Adierazlea</b> MET laguntza-programaren bidez IKT-etan oinarritutako proiektuak zenbat diren		

<b>AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA FINANTZAKETAREN EHUNEKOA, FINANTZAKETA PUBLIKOA OROTARA HARTUTA</b>		
	2017	2018
	28.000	
4.kapitulua	672.000	
7.kapitulua	700.000	1

<b>Zein sektore edo sektoreri zuzentzen zaien eta diru-laguntza emateko prozedura</b>	
Zein sektoreri dagokio:	Turismo sektorea( pertsona fisikoak, enpresa txikiak eta handiak, mikro enpresak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak
<b>Diru-laguntza emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:</b>	Agindua eta urteko deialdia / Lehiaketa

**Ardatz estrategikoa:** Hazkunde turistikoa sendoa, enplegu gehiago eta hobe duena.

**Helburu estrategikoa:** Euskal jardueraren turistikoa bikaintasuna sustatzea

**Organoa:** Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza

**Programa:** Turismo (75111)

**Diru-laguntza lerroa:** Deustuko Unibertsitatearekin egindako Prestakuntza-Hitzarmena

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2017	
<p><b>Helburua:</b> Eskaintza turistikoa balio erantsia handitzea, Euskadi aberastasuna eta kalitatezko lana sortu ahal duen kalitatezko eta bikaintasunezko turismo helmuga izan dadin.</p> <p><b>Ekintza:</b> Sektorearen profesionaltasuna sustatzea eta lanbide turistikoa babestea</p> <p><b>Adierazlea:</b> Deustuko Unibertsitatearen prestakuntzarekin egindako hitzarmena ikasleen praktika-modalitatearen bidezkoa (Zenbat bekadun gizonetzkoak eta zenbat emakumezkoak)</p>	30	

AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA FINANTZAKETAREN EHUNEKOA, FINANTZAKETA PUBLIKOA OROTARA HARTUTA		
	2017 zenbatekoa	Urtekoen kopurua
	38.000 €	1

Zein sektore edo sektoreri zuzentzen zaien eta diru-laguntza emateko prozedura	
<b>Zein sektoreri dagokio:</b>	Unibertsitatea
<b>Diru-laguntza emateko prozedura eta instrumentalizatze modua:</b>	Diru-laguntza izenduna/Hitzarmena

**Ardatz estrategikoa:** Hazkunde turistikoa sendoa, enplegu gehiago eta hobea duena.

**Helburu estrategikoa:** Bikaintasuna

**Organoa:** Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza

**Programa:** Turismo (75111)

**Diru-laguntza lerroa:** Diru-laguntza izendunak eta hitzarmen sektorialak

**Helburuak, ekintzak eta adierazleak**

	2017	
<p><b>Helburua:</b> Eskaintza turistikoa balio erantsia handitzea, Euskadi aberastasuna eta kalitatezko lana sortu ahal dituen kalitatezko eta bikaintasunezko turismo helmuga izateko. Ekintza: Turismoko Plan Zuzentzailea egitea</p>		
<p><b>Adierazlea:</b> Berriz-Enpresa izeneko programarako Eusko Ganberaki zuzendutako diru-laguntza izendunak</p>	3	
<p><b>Adierazlea:</b> Enpresa elkarteekiko hitzarmenak eta diru-laguntza izendunak euskal industria turistikoa indartzeari eta sendotzeari zuzendutako estrategietan laguntzeko (SEA Arabako Enpresariak, Gipuzkoako eta Bizkaiko Ostalaritzako Enpresarien Elkarteak)</p>	3	

**AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA FINANTZAKETAREN EHUNEKOA, FINANTZAKETA PUBLIKOA OROTARA HARTUTA**

	2017 zenbatekoa	Urtekoen kopurua
	194.999 €	1

**Zein sektore edo sektoreri zuzentzen zaien eta diru-laguntza emateko prozedura**

Zein sektoreri dagokio:	EAEko Merkataritza Ganberak eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Ostalaritzako Enpresarien elkarteak, bai eta SEA Arabako Enpresariak (ostalaritza-sektorea)
<b>Diru-laguntza emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:</b>	Diru-laguntza izenduna/Hitzarmena

**Ardatz estrategikoa:** Hazkunde turistikoa sendoa, enplegu gehiago eta hobea duena

**Helburu estrategikoa:** Jasangarritasuna

**Organoa:** Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza

**Programa:** Turismo (75111)

**Diru-laguntza lerroa:** Turismoko Lurralde-Proiektuei zuzendutako laguntzak 2017/2018

**Helburuak, ekintzak eta adierazleak**

	2017	
<p><b>Helburua:</b> Euskadi turismo-helmuga aparta eta jasangarria izan dadin finkatze lana egitea, ingurunearen errespetuan nahiz kalitate-estandar altuetan oinarritua.</p> <p><b>Ekintzak:</b> Euskal berezitasunean oinarritutako eskaintza turistikoa garatzea, bere estilo eta bizimoduari, bizipen eta esperientziari lotutakoa. Produktu anitzeko helmuga turistikoa garatzea. Udalerriekiko eta beste toki erakundeekiko lankidetzan oinarritutako lurralde-eredu turistikoa sustatzea.</p> <p><b>Adierazlea:</b> Zenbat eskaera lagundu diren</p>	31	

**AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA FINANTZAKETAREN EHUNEKOA, FINANTZAKETA PUBLIKOA OROTARA HARTUTA**

	2017		2018	
	zenbatekoa	%		%
	904.000 €	70	387.429€	30

**Zein sektore edo sektoreri zuzentzen zaien eta diru-laguntza emateko prozedura**

Zein sektoreri dagokio:	Haien eginkizunen edo helburuen artean jardueraren garapena edo sustapena duten EAEn dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak
<b>Diru-laguntza emateko prozedura eta instrumentalizatze modua:</b>	Agindua eta Urteko deialdia/ Lehiaketa

**Ardatz estrategikoa:** Hazkunde turistikoa sendoa, enplegu gehiago eta hobe duena..

**Helburu estrategikoa:** Euskadi-Basque Country marka turistikoa

**Organoa:** Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza

**Programa:** Turismo (75111)

**Diru-laguntza lerroa:** Basque Culinary Center Fundazioarekiko hitzarmena

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		
	2017	
<p><b>Helburua</b> Euskadi Basque Country izeneko marka eta dagokion claima indartzea, Euskadin dagoen turismo-politikaren kudeaketa koordinatua erraztuz</p> <p><b>Ekintza</b> Euskadi Basque Country marka turistikoa kokapenerako oinarriko erreferentetzat har dadin gure helmuga turistikoa bereizten duten elementuak sustatzea</p> <p><b>Adierazlea</b> Basque Culinary Centerreko hitzarmena Euskadik duen gastronomia-irudia indartuz.</p>	1	

AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA FINANTZAKETAREN EHUNEKOA, FINANTZAKETA PUBLIKOA OROTARA HARTUTA		
	2017 Zenbatekoa	2017 Urtekoen kopurua
4.kapitulua	35.000 €	

Zein sektore edo sektoreri zuzentzen zaien eta diru-laguntza emateko prozedura	
<b>Zein sektoreri dagokio:</b>	Unibertsitatea
<b>Diru-laguntza emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:</b>	Diru-laguntza izenduna/hitzarmena

**Ardatz estrategikoa:** Hazkunde turistikoa sendoa, enplegu gehiago eta hobe duena..

**Helburu estrategikoa:** Euskadi-Basque Country marka turistikoa

**Organoa:** Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza

**Programa:** Turismo (75111)

**Diru-laguntza lerroa:** Donostiako Nazioarteko Zinemaldiari (S.A.) zuzendutako diru-laguntza

<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>		
	2017	
<p><b>Helburua</b> Euskadi Basque Country izeneko marka eta dagokion claima indartzea, Euskadin dagoen turismo-politikaren kudeaketa koordinatua erraztuz</p> <p><b>Ekintza</b> Euskadi Basque Country marka turistikoa kokapenerako oinarriko erreferentzetan har dadin gure helmuga turistikoa bereizten duten elementuak sustatzea.</p> <p><b>Adierazlea</b> Nazioarteko proiektu handiko ekitaldiak sustatzeko eta merkaturatzeko egindako hitzarmenak (Donostiako Nazioarteko Zinemaldiari (S.A.) )</p>	1	

AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA FINANTZAKETAREN EHUNEKOA, FINANTZAKETA PUBLIKOA OROTARA HARTUTA		
	2017 zenbatekoa	Urtekoen kopurua
4.kapitulua	35.000 €	1

<b>Zein sektore edo sektoreri zuzentzen zaien eta diru-laguntza emateko prozedura</b>	
<b>Zein sektoreri dagokio:</b>	Kultura-ekitaldi handiak antolatzen dituzten enpresak
<b>Diru-laguntza emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:</b>	Diru-laguntza izenduna/hitzarmena



**Ardatz estrategikoa:** Hazkunde turistikoa sendoa, enplegu gehiago eta hobe duena..

**Helburu estrategikoa:** Euskadi-Basque Country marka turistikoa

**Organoa:** Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza

**Programa:** Turismo (75111)

**Diru-laguntza lerroa:** Jazz Hitzarmena

<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>		
	2017 zenbatekoa	Urtekoen kopurua
<p><b>Helburua</b> Euskadi Basque Country izeneko marka eta dagokion claima indartzea, Euskadin dagoen turismo-politikaren kudeaketa koordinatua erraztuz</p> <p><b>Ekintza</b> Euskadi Basque Country marka turistikoa kokapenerako oinarriko erreferentetzat har dadin gure helmuga turistikoa bereizten duten elementuak sustatzea.</p> <p><b>Adierazlea</b> Proiektzio handiko ekitaldiak sustatzeko eta merkaturatzeko egindako hitzarmenak (Jazz Hitzarmena: Vitoria-Gasteizko, Donostiako eta Getxoko Jazzaldiak)</p>	3	

<b>AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA FINANTZAKETAREN EHUNEKOA, FINANTZAKETA PUBLIKOA OROTARA HARTUTA</b>		
	2017	
4.kapitulua (20.000€ Jazzaldi bakoitzari)	60.000 €	1

<b>Zein sektore edo sektoreri zuzentzen zaien eta diru-laguntza emateko prozedura</b>	
<b>Zein sektoreri dagokio:</b>	Udalak, Irabazi-asmorik gabeko erakundeak
<b>Diru-laguntza emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:</b>	Diru-laguntza izenduna/hitzarmena

**Ardatz estrategikoa:** Hazkunde turistikoa sendoa, enplegu gehiago eta hobe duena..

**Helburu estrategikoa:** Euskadi-Basque Country marka turistikoa

**Organoa:** Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza

**Programa:** Turismo (75111)

**Diru-laguntza lerroa:** Blues Jazzaldia. Hitzarmena. Hondarribiko Udala

<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>		
	2017	
<b>Helburua</b> Euskadi Basque Country izeneko marka eta dagokion claima indartzea, Euskadin dagoen turismo-politikaren kudeaketa koordinatua erraztuz		
<b>Ekintza</b> Euskadi Basque Country marka turistikoa kokapenerako oinarriko erreferentetzat har dadin gure helmuga turistikoa bereizten duten elementuak sustatzea		
<b>Adierazlea</b> Nazioarteko proiektio handiko ekitaldiak sustatzeko eta merkaturatzeko egindako hitzarmenak (Hondarribiko Blues Jazzaldia)	1	

<b>AURREKONTU-KONPROMISOAK ETA FINANTZAKETAREN EHUNEKOA, FINANTZAKETA PUBLIKOA OROTARA HARTUTA</b>		
	2017 Zenbatekoa	Urtekoen kopurua
4.kapitulua (20.000€ Jazzaldi bakoitzari)	20.000 €	1

<b>Zein sektore edo sektoreri zuzentzen zaien eta diru-laguntza emateko prozedura</b>	
<b>Zein sektoreri dagokio:</b>	Udala
<b>Diru-laguntza emateko prozedura eta instrumentalizatzeko modua:</b>	Diru-laguntza izenduna/hitzarmena

**Ardatz estrategikoa:** Hazkunde turistikoa sendoa, enplegu gehiago eta hobe duena..

**Helburu estrategikoa:** Euskadi-Basque Country marka turistikoa

**Organoa:** Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza

**Programa:** Turismo (75111)

**Diru-laguntza lerroa:** Hipódromo Apuestas Hípicas de Euskadiri (S.A.) zuzendutako diru-laguntza. Eusko Jaurlaritza saria

<b>Helburuak, ekintzak eta adierazleak</b>		
	2017	
<b>Helburua</b> Euskadi Basque Country izeneko marka eta dagokion claima indartzea, Euskadin dagoen turismo-politikaren kudeaketa koordinatua erraztuz		
